# Hernani Azkueren kanta bilduman

*Patxi Apezetxea Agirre*



1912. urtean, Bizkaia, Araba, Nafarroa eta Gipuzkoako Aldundiek, laurak bat eginik, euskal herri-kanten bi bilduma onenak saritzeko deialdia egiteko ideia ezin hobea plazaratu zuten. Era horretan, Euskal Herriko doinu ugari, betiko gal ez zitezen saiakera egin zuten.

Bi bilduma besterik ez ziren partaide izan lehiaketa honetan: Resurrección María de Azkueren "Vox Populi" lelopean bata eta Aita Donostiaren, "Gure Abendaren Ereserkiak" izenpean bestea.

Lehen saria, 1689 ahozko doinu eta 121 instrumentu lanez osatutako Azkueren (Lekeitio 1864-Bilbo 1951) bildumak jaso zuen. Guzti hauetatik 1001 doinu hautatu ziren, "CANCIONERO POPULAR VASCO" izenpean argitaratzeko.

Azkueren kanta-bilduma hau, musikari eta musika egileentzat kontsulta eta inspirazio iturri izan ohi da. Horren frogagarri, hor ditugu Guridi, Aranbarri, Sorozabal, eta abar eta abarrenak eta areago, gure kantari herrikoienak, "Ez dok Amairu" taldekoak kasu. Oro har, euskal kantagintzako talde guztiek beren errepertorioak lantzeko, kanta-bilduma honek dakarren aberastasun eta oparotasun iturritik edan dute.

Azkue, ezbairik gabe, Euskal Herriko herri eta txoko ugaritan zehar ibili zen, bere belarrietara iristen ziren doinu guztiak entzuten eta biltzen, eta Hernanin ere egon zen, hainbat kanta bilduz. Hauetariko batzuk, Marca Maria Irurtiak kantaturikoak dira (Hernani 1831, Hernani 1919).

Hona hemen, Hernaniko jatorria izan eta bilduma horretan agertzen diren doinu eta dagozkien hitzak.

# 504.- MARIA DAGO NEGAŔEZ




# 489.- ATSOAK LAŔUA ZAIL




# 498.- HERNANIKO AZOKAN



# 613.- AU DA BUONAPARTEREN




# 943.- EŔEGEAK DATOZ



# 950.- GOAZEN GOAZEN KOŔIKA




# 984.- TXAMAŔA TXARTXO BAT



# 997.- ZAPATA TXURIAK






UDAL BIBLIOTEKA HERNANI